# Bestelako Xedapenak

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

**5480**

EBAZPENA, 2010eko urriaren 25ekoa, Lanbide Heziketako zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoan teknikariaren eta goi-mailako teknikariaren tituluak lortzeko 2010-2011 ikasturteari dagozkion proba libreetarako deia egiten duena.

Euskal Autonomia Erkidegoan teknikariaren eta goi-mailako teknikariaren tituluak lortzeko probak arautzen dituen 2008ko ekainaren 19ko Aginduaren 4. artikuluak honako hau xedatzen du: «Deialdiak Lanbide Heziketako zuzendariaren ebazpenen bidez gauzatuko dira. Ebazpen horietan, izen emateko aldia eta proben datak zehaztuko dira». Era berean, 2. artikuluak ezartzen du proba horiek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendeko ikastetxeetan egingo direla, baimenduta dituzten heziketa-zikloetan, eta, betiere, araubide arruntean matrikulatutako ikasleak badituzte lehen nahiz bigarren ikasturtean.

Horren ondorioz,

EBATZI DUT:

***1. artikulua.***– Deialdia.

2010-2011 ikasturteari dagozkion proba libreetarako deialdia egingo da. Proba horiek teknikariaren eta goi-mailako teknikariaren tituluak lortzeko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2008ko ekainaren 19ko Aginduaren bidez arautzen dira. Aipatutako tituluak Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren (LOGSE) ondorioz sortuak dira.

***2. artikulua.***– Matrikula.

2009-2010 eta 2010-2011 ikasturteetan Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren (LOE, I. eranskina) ondorioz sortutako heziketa-ziklo berriek ordezkatu dituzten heziketa-zikloen kasuan, proba horiek egiteko matrikula egin ahal izango dute (2/2006 Lege Organikoaren ondorioz sortutako ziklo berria ezartzen deneko ikasturtean eta hurrengoan) matrikula eskatzen duteneko heziketa-zikloa osatzen duten lanbide-modulu guztietan nahiz horietako batean edozein modalitatetan aurretik matrikulatuta egon direnek. Eskakizun hori egiaztatzeko, pertsona

# Otras Disposiciones

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

**5480**

RESOLUCIÓN de 25 de octubre de 2010, de la Directora de Formación Profesional, por la que se convocan las pruebas libres para la obtención de los títulos de Técnico y Técnico Superior en la Comunidad Autónoma del País Vasco, correspondientes al curso 2010-2011.

La Orden de 19 de junio de 2008, por la que se regulan las pruebas para la obtención de los títulos de Técnico y Técnico Superior en la Comunidad Autónoma del País Vasco dispone en su artículo 4, que la convocatoria para las mismas se realizará mediante Resolución del Director de Formación Profesional y en ella se determinará el período de matriculación y las fechas en que se realizarán. Igualmente, el artículo 2 establece que se convocarán en los centros públicos dependientes del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, en aquellos ciclos formativos que tengan autorizados y cuenten con alumnado matriculado en régimen ordinario tanto en el primer curso como en el segundo.

En su virtud,

RESUELVO:

***Artículo 1.***– Convocatoria.

Se convocan las pruebas libres correspondientes al curso 2010-2011, reguladas por la Orden de 19 de junio de 2008, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, para la obtención de los títulos de Técnico y Técnico Superior, emanados de la Ley Orgánica 1/1990, de 3 de octubre, de Ordenación General del Sistema Educativo (LOGSE).

***Artículo 2.***– Matrícula.

En el caso de ciclos formativos que ya hayan sido sustituidos en el curso 2009-2010 y 2010-2011 por nuevos ciclos formativos emanados de la Ley Orgánica 2/2006), de 3 de mayo, de Educación (LOE) (anexo I), podrán matricularse para la realización de estas pruebas, en el curso académico de implantación del nuevo ciclo emanado de la Ley Orgánica 2/2006 y en el siguiente, quienes con anterioridad hayan estado matriculados o matriculadas, en cualquiera de las modalidades, en la totalidad o en alguno de los módulos profesionales que integran el ciclo formativo

interesduna matrikulatuta egon den ikastetxeko idazkariak igorritako ziurtagiria aurkeztuko da.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren ondorioz sortutako heziketa-ziklo berriek ordezkatzen ez dituzten heziketa-zikloen kasuan, pertsona interesdun guztiak matrikulatu ahal izango dira probak egiteko.

Matrikulatu ahal izateko, artikulu honetan aipatzen diren ikasleek bete egin beharko dituzte Euskal Autonomia Erkidegoan teknikariaren eta goi-mailako teknikariaren tituluak lortzeko probak arautzen dituen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2008ko ekainaren 19ko Aginduan (uztailaren 14ko EHAA) ezarritako eskakizunak.

***3. artikulua.***– Zein ikastetxetan egin ahal izango den matrikula.

Matrikula egin ahal izango da, heziketa-ziklo osorako edo lanbide-moduluetarako, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendeko ikastetxe publikoetan, baimenduak dituzten heziketa-zikloetan, baldin eta araubide arruntean ikasleak lehen ikasturtean zein bigarrenean matrikulatuta badituzte.

2009-2010 eta 2010-2011 ikasturteetan Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren (LOE) ondorioz sortutako heziketa-ziklo berriek ordezkatu dituzten heziketa-zikloen kasuan, ikastetxeek ikasleak izan beharko dituzte, bigarren ikasturtean, matrikulatzen den heziketa-zikloan; hura ordezkatzen duen heziketa-zikloan, lehen ikasturtean; edo, hala badagokio, azken ziklo horren bi ikasturteetan.

***4. artikulua.***– Matrikula eta probak egiteko aldia.

Matrikula 2011ko apirilaren 4tik 15era bitartean egin beharko da, bi egun horiek barne.

Probak 2011ko ekainaren 1etik 24ra bitartean –bi egun horiek barne– egin ahal izango dira, ikastetxe bakoitzak ezartzen duen egutegira egokituz.

***5. artikulua.***– Tasak ordaintzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legearen testu bategina onartzeko irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuak aipatzen dituen modalitateen bitartez ordaindu ahal izango da azterketa egiteko eskubidea. Kreditu-erakunde kolaboratzaileek lagunduko dute horretan. Azterketa-eskubideak ordaintzeko azken eguna 2011ko apirilaren 30a izango da.

para el que solicitan la matrícula. Este requisito será acreditado mediante la presentación de un certificado expedido por el secretario o secretaria del centro en que hubiera estado matriculado o matriculada la persona interesada.

En el caso de ciclos formativos que no hayan sido sustituidos por nuevos ciclos formativos emanados de la Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación, podrán matricularse para la realización de estas pruebas, todas las personas interesadas.

Los alumnos y alumnas a los que hace referencia este artículo para poder matricularse deberán cumplir los requisitos establecidos en la Orden de 19 de junio de 2008, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se regulan las pruebas para la obtención de los títulos de Técnico y Técnico Superior en la Comunidad Autónoma del País Vasco (BOPV de 14 de julio).

***Artículo 3.***– Centros en los que podrá realizarse la matrícula.

La matrícula podrá realizarse, por ciclo formativo completo o por módulos profesionales, en los centros públicos dependientes del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, en aquellos ciclos formativos que tengan autorizados y cuenten con alumnado matriculado en régimen ordinario, tanto en el primer curso como en el segundo.

En el caso de ciclos formativos que ya hayan sido sustituidos en el curso 2009-2010 y 2010-2011 por nuevos ciclos formativos emanados de la Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación (LOE), deberán contar con alumnado en el segundo curso del ciclo formativo en el que se realiza la matrícula y en el primer curso del ciclo formativo que le sustituye o, en su caso, en ambos cursos de este último ciclo.

***Artículo 4.***– Período de matriculación y realización de las pruebas.

La matrícula se formalizará en el periodo comprendido entre el 4 y el 15 de abril de 2011, ambos inclusive.

Las pruebas, ajustándose al calendario que cada centro establezca, se realizarán en el período comprendido del 1 al 24 de junio de 2011, ambos inclusive.

***Artículo 5.***– Pago de tasas.

El pago de los derechos de examen podrá efectuarse mediante las modalidades previstas en el Decreto legislativo 1/2007, de 11 de septiembre, de aprobación del Texto Refundido de la Ley de tasas y precios públicos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y la intermediación de entidad de crédito colaboradora. El último día para hacer efectivos los derechos de examen será el 30 de abril de 2011.

Matrikulak balioa izan dezan, azterketa egiteko eskubideei dagokien tasa ordaindu beharko da. 2011ko maiatzaren 5ean jarriko da ikusgai, ikastetxeko iragarki-oholean, tasa ordaindu duten pertsonen zerrenda. Zerrenda horretan egon litezkeen akatsak zuzentzeko, epe bat irekiko da kaltetuek erreklamazioak jar ditzaten, eta epe hori maiatzaren 11n amaituko da. Maiatzaren 16an jarriko da ikusgai matrikulatu diren eta probetara aurkez daitezkeen pertsonen behin betiko zerrenda.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa***.– Prozedura gaietan agindu honetan arautu gabeko kasuetan, azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritakoa aplikatuko da (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa).

***Bigarrena***.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko urriaren 25a.

Lanbide Heziketako zuzendaria,
MARÍA JOSÉ MADARIAGA ROLA.

La matrícula sólo será efectiva tras el pago de la tasa correspondiente a los derechos de examen. El 5 de mayo de 2011, se hará publica en el tablón de anuncios del centro la relación de personas que han abonado la tasa. Para corregir posibles errores de ésta, se establece un período de presentación de reclamaciones, por parte de los/las afectados/as, que finalizará el 11 de mayo. El 16 de mayo se hará pública la relación definitiva de personas que se han matriculado y pueden presentarse a las pruebas.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera***.– En lo no regulado en la presente Resolución en materia de procedimiento será de aplicación supletoria la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

***Segunda***.– La presente Resolución surtirá efectos el día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 25 de octubre de 2010.

La Directora de Formación Profesional,
MARÍA JOSÉ MADARIAGA ROLA.

I. ERANSKINA

2009-2010 IKASTURTEAN FINKATUTAKO LOE ZIKLOAK

| LANBIDE ARLOA | LOE HEZIKETA ZIKLOAK | LOGSE ZIKLOAREN ORDEZ |
|---|---|---|
| Elektrizitatea eta elektronika | Instalazio elektrikoak eta automatikoak | Ekipo eta instalazio elektroteknikoak |
| Fabrikazio mekanikoa | Mekanizazioa | Mekanizazioa |
| | Soldadura eta galdaragintza | Soldadura eta galdaragintza |
| | Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa | Mekanizazio bidezko produkzioa |
| | Metal-eraikuntzak | Metal-eraikuntzak |
| Ostalaritza eta turismoa | Sukaldaritza eta gastronomia | Sukaldaritza |
| | Jatetxe arloko zerbitzuak | Jatetxeko eta tabernako zerbitzuak |
| | Turismo-ostatuak kudeatzea | Ostatu arloa |
| Informatika eta komunikazioak | Mikroinformatika-sistemak eta sareak | Informatika-sistemen ustiapena |
| Instalatze- eta mantentze-lanak | Bero- eta fluido-instalazioen proiektuen garapena | Fluido-, bero- eta manutentzio-instalazioen proiektuen garapena |
| | Instalazio termikoak eta fluidodunak mantentzea | Eraikin- eta prozesu-instalazioak muntatu eta mantentzea |
| Elikagaien industriak | Okintza, gozogintza eta konfiteria | Okintza eta gozogintza Pastelgintza eta okintza |
| Kimika | Analisiko eta kalitate-kontroleko laborategia | Analisia eta kontrola |
| Osasuna | Farmazia eta parafarmazia | Farmazia |
| Gizarte- eta kultura-zerbitzuak | Haur-hezkuntza | Haur-hezkuntza |
| Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza | Patroigintza eta moda | Patroigintza Jantzigintza industrialeko prozesuak |
| Garraioa eta ibilgailuen mantentze-lanak | Karrozeria | Karrozeria |

2010-2011 IKASTURTEAN FINKATUTAKO LOE ZIKLOAK

| LANBIDE ARLOA | LOE HEZIKETA ZIKLOAK | LOGSE ZIKLOAREN ORDEZ |
|---|---|---|
| Fabrikazio mekanikoa | Fabrikazio mekanikoko diseinua | Proiektu mekanikoen garapena |
| Ostalaritza eta turismoa | Bidaia-agentziak eta ekitaldien kudeaketa | Bidaia-agentziak |
| | Turismo-gidaritza, -informazioa eta -laguntza | Turismo-merkaturatzea eta -informazioa |
| Informatika eta komunikazioak | Sareko informatika-sistemen administrazioa | Informatika-sistemen administrazioa |
| Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza | Jantzigintza eta moda | Jantzigintza |
| Garraioa eta ibilgailuen mantentze-lanak | Automozioa | Automozioa |

*ANEXO I*

*CICLOS LOE IMPLEMENTADOS EN EL CURSO 2009-2010*

| FAMILIA PROFESIONAL | CICLOS FORMATIVOS LOE | SUSTITUYE AL CICLO LOGSE |
|---|---|---|
| Electricidad y Electrónica | Instalaciones Eléctricas y Automáticas | Equipos e Instalaciones Electrotécnicas |
| Fabricación mecánica | Mecanizado | Mecanizado |
| | Soldadura y Calderería | Soldadura y calderería |
| | Programación de la Producción en Fabricación Mecánica | Producción por Mecanizado |
| | Construcciones Metálicas | Construcciones Metálicas |
| Hostelería y turismo | Cocina y Gastronomía | Cocina |
| | Servicios en Restauración | Servicios de Restaurante y Bar |
| | Gestión de Alojamientos Turísticos | Alojamiento |
| Informática y comunicaciones | Sistemas Microinformáticos y Redes | Explotación de sistemas Informáticos |
| Instalación y Mantenimiento | Desarrollo de Proyectos de Instalaciones Térmicas y de Fluidos | Desarrollos de Proyectos de instalaciones de fluidos, térmicas y de manutención. |
| | Mantenimiento de Instalaciones Térmicas y de Fluidos | Mantenimiento y montaje de instalaciones de edificio y proceso |
| Industrias Alimentarias | Panadería, Repostería y Confitería | Panificación y repostería Pastelería y panadería |
| Química | Laboratorio de Análisis y de Control de Calidad | Análisis y control |
| Sanidad | Farmacia y Parafarmacia | Farmacia |
| Servicios Socioculturales y a la Comunidad | Educación Infantil | Educación Infantil |
| Textil, confección y piel | Patronaje y Moda | Patronaje Procesos de confección industrial |
| Transporte y mantenimiento de vehículos | Carrocería | Carrocería |

*CICLOS LOE IMPLEMENTADOS EN EL CURSO 2010-2011*

| FAMILIA PROFESIONAL | CICLOS FORMATIVOS LOE | SUSTITUYE AL CICLO LOGSE |
|---|---|---|
| Fabricación mecánica | Diseño en Fabricación Mecánica | Desarrollo de proyectos mecánicos |
| Hostelería y turismo | Agencias de Viajes y Gestión de Eventos | Agencias de viajes |
| | Guía, Información y Asistencia Turísticas | Información y Comercialización Turísticas |
| Informática y comunicaciones | Administración de Sistemas Informáticos en Red | Administración de sistemas informáticos |
| Textil, confección y piel | Confección y Moda | Confección |
| Transporte y mantenimiento de vehículos | Automoción | Automoción |